

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Eguzkia*

**2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006**

Akta zenbakia: 7/2006**Bilera data:** 2006-05-31**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura**Deialdia:** Lehenengoa**Ordua:** 16:30-17:35**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia**Acta nº:** 7/2006**Fecha:** 31-05-2006**Tipo de reunión:** Pleno ordinario**Convocatoria:** Primera**Hora:** 16:30 – 17:35**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento**Bertaratutakoak:****Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

Maria Isabel Vaquero Montero

Jose Luis Aramendi Goikoetxea

Jose Maria Aldanondo Ugalde

Maria Angeles Iriondo Múgica

Gaspar Esnaola Agesta

M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz

Hermenegildo Gonzalez Moran

Consuelo Frutos González

Jose Guirado Novo

Jose Maria Mugica Heras

Juan Maria Tomasena Alzuri

M. Asuncion Guerra Alonso

Reunidos:**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Concejales:**

Maria Isabel Vaquero Montero

José Luis Aramendi Goikoetxea

Jose Maria Aldanondo Ugalde

Maria Ángeles Iriondo Múgica

Gaspar Esnaola Agesta

M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz

Hermenegildo González Morán

Consuelo Frutos González

José Guirado Novo

Jose Maria Mugica Heras

Juan Maria Tomasena Alzuri

M. Asuncion Guerra Alonso

Bitarteko idazkaria:

Beatriz Garate Cortabarría

Secretaria interina:

Beatriz Garate Cortabarría

Aztergaiak:

1.- Alkatetzako eta Tokiko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea.

2.- Udal liburutegiko zerbitzuari buruz PSEk aurkeztutako mozioa.

3.- Urnietako Osasun Etxeari buruz PSEk aurkeztutako mozioa.

4.- Galde-eskeak.


Orden del día:

1.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

2.- Moción presentada por el PSE, sobre el servicio de la Biblioteca Municipal.

3.- Moción presentada por el PSE, sobre el Centro de Salud de Urnieta.

4.- Ruegos y preguntas.



**2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006**

1.- Alkatetzako eta Tokiko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea.

2006ko martxoaren 21etik 2006ko maiatzaren 24ra bitarteko Alkatetzako dekretuen berri eman zaie udal batzarkideei, deialdiarekin batera banatutakoena.

Era berean, 2006ko martxoaren 6an eta 20an eta 2006ko apirilaren 3an eta 24an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilkuren akten berri eman zaie udalbatzarkideei. Beraz, jakinaren gainean geratu dira.

2.- Udal liburutegiko zerbitzuari buruz PSEk aurkeztutako mozioa.

Gai honen inguruan azalpenak emateko, alkateak talde sozialistari eman dio hitza, honek mozioa aurkeztu baitu.

Hermenegildo Gonzalez Moran zinegotzi sozialistak hartu du hitza, eta argitu du ez dutela uste honako hau moziarako gaia denik, baina langileria batzorde bat eskatu zutela, ez zietela kasurik egin eta, beraz, gaia mozio bidez aurkeztea erabaki zutela. Eskatzen dute Udalak udal liburutegiko lanpostuaren eta horko langileak gaur egun egiten dituen lanen gaineko azterketa eta txosten tekniko bana agindu ditzala, eta txosten hori aztertu ostean, erregulariza dezala edo ez dezala erregularizatu Luixi Zabalegi Anabitarte langilearen egoera.

Alkateak hartu du hitza esateko liburutegiko hainbat jarduera aldatu direla azkeneko urteetan; adierazi du beste eskaera batzuk eskatu dituztela herritarrek, informatikako hainbat atal bete beharra daudela, eta, hori dela eta, txosten hori eskatuta dagoela eta horren ondorio bezala, ateratzen denarekin, nolabait langilearen betebeharrak bereizi beharko direla;

1.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 21 de marzo de 2006 al 24 de mayo de 2006, y que se han enviado junto con la convocatoria.


Asimismo, se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local el 6 y 20 de marzo de 2006 y el 3 y 24 de abril de 2006, de modo que han quedado informados.

2.- Moción presentada por el PSE, sobre el servicio de la Biblioteca Municipal.

El alcalde ha dado la palabra al grupo socialista para que explique la moción que ha presentado.

Ha tomado la palabra el concejal socialista Hermenegildo González Morán para aclarar que no consideran que esto sea un tema de moción pero que solicitaron una comisión de personal, que no fue atendida y por lo tanto decidieron presentar el tema a través de una moción. Lo que solicitan es que el Ayuntamiento encargue un estudio y un informe técnico al puesto y a las labores que viene desarrollando la actual trabajadora de la biblioteca municipal y que estimado dicho informe, se proceda o no a la regularización de la citada trabajadora, Luixi Zabalegi Anabitarte.

Ha tomado la palabra el alcalde para señalar que en los últimos años se han modificado varias actividades de la biblioteca; ha añadido que el ciudadano ha demandado otras necesidades, que hay que cumplir ciertos requisitos informáticos y que, por tanto, ese informe ya se ha encargado y según las conclusiones que se deriven del mismo, deberán determinar las obligaciones de la

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Gyuskoa*

2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

gaineratu du ados daudela eta horretan ari direla. Bestetik, hainbat behar ikusten dituztenez, azkeneko Gobernu Batzarrean Mikaela Enea eraikinaren egokitzapen proiekturako laguntza teknikoa kontratatzeko akordioa hartu dute, eta hori liburutegiarekin lotuta dago. Beraz, txostena jasotzen dutenean, zuzenketak egingo dira, langileei eta liburutegiko jarduerari buruz.

(Orduan, 16:35ean, PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonso sartu da batzar aretora).

Hermenegildo Gonzalez Moranek alkateari erantzun dio auzia lanpostuari dagokiola, inoiz ez baita berrikusi eta haien ustez lan maila txikia baitu; alkateak erantzun dio beraiek areago doazela, liburutegiaren inguruan bai baitira beste eskaera batzuk, eta horiei ere kasu egin behar zaie.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik eskatu du hitza, eta esan du ados dagoela proposamenarekin, eta galdetu du berrantolaketa hori zerbitzu guztietarako den. Oraingoz udal liburutegirako bakarrik dela erantzun diote.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan du:

Alde: 13 (6 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 EB, 1 PP).
Kontra: 0.
Abstentzioak: 0

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa eta bakarra.- PSEko udal taldeak aurkeztu duen mozioa onartzea, akta

trabajadora; ha señalado que están de acuerdo en ese punto y que están en ello. Por otra parte, visto que existen varias necesidades, en la última Junta de Gobierno han adoptado el acuerdo de contratar asistencia técnica para la redacción del proyecto de habilitación del edificio de Mikaela Enea, proyecto ligado a la biblioteca. Por tanto, una vez se reciba el informe se harán las enmiendas oportunas tanto en relación a los trabajadores como a la actividad de la biblioteca.

(En estos momentos, siendo las 16:35h., entra en la sala de plenos la concejala del PP M^a Asunción Guerra Alonso).

Hermenegildo González Morán le responde al Alcalde que se trata de una cuestión de nivel del puesto, que nunca se ha revisado y que ellos consideran que es un nivel laboral bajo; el Alcalde le responde que ellos van más lejos, porque hay ciertas demandas con respecto a la biblioteca que también hay que atender.

Toma la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para decir que está de acuerdo con la propuesta y para preguntar si la reorganización se refiere a todos los servicios; se le contesta que de momento es referida a la biblioteca municipal.


El alcalde propone someterlo a votación, obteniendo el siguiente resultado:

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 IU, 1 PP).
En contra: 0
Abstenciones: 0

Tras la votación, el Pleno por unanimidad adopta el siguiente

ACUERDO

Primero y único.- Aprobar la moción presentada por el grupo municipal PSE, según el



**2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006**

honetako eranskinaren arabera, zeina anexo adjunto al presente acta, que consta ya en
espedientean jasota baitago (Akta honen expediente (Anexo I del presente acta).
lehenengo eranskina).

3.- Urnietako Osasun Etxeari buruz PSEk aurkeztutako mozioa.

Alkateak talde sozialistari eman dio hitza gai hau azal dezan.

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta azaldu du osasun etxeari buruzko mozio hau aurkeztu dutela, horretaz konbentzita daudelako; izan ere, udaleko talde sozialistak aurreko hauteskundeetarako aurkeztu zuen proiektuetako bat da; esan du mozioari txosten bat erantsi diotela, Urnietako osasun etxeko langileek osasun etxeko egoerari, langileen baldintzei eta herriaren beharrei buruz idatzitakoa, eta txosten horrek ondo baino hobeto azaltzen duela mozio hau. Mozioa onartzea eskatu du, eta izapideak azkartzea, urnietar guztientzako baldintza eta zerbitzu berberak izango dituen osasun etxe berri bat eraikitzeko; izan ere, herritar batzuen medikua lanaldi erdiz dago, eta, beraz, uste dute lehenengo eta bigarren mailako herritarrek daudela.

Gero, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik eskatu du hitza, eta azaldu du bat egiten duela gaiarekin, aspaldi ari direla horri buruz hitz egiten eta berak proposatzen zituen lur erreserbak horretarako zirela eta uste duela denek eman behar dituztela pausoak hobetzeko.

Gero, PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsok eskatu du hitza, eta esan du erabat ados dagoela proposatutakoaren muinarekin, egia baita eraikina zaharkitua dagoela eta ez dituela gutxieneko beharrak betetzen; alabaina, ez zaio gustatzen nola idatzi diren mozioko hiru puntuak. Lehenengo puntuak dio behar horren

3.- Moción presentada por el PSE, sobre el Centro de Salud de Urnieta.

El alcalde ha cedido la palabra al grupo socialista para que explique este punto.

Ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para exponer que han presentado esta moción en relación al Centro de Salud porque están convencidos de la misma, ya que era un proyecto del grupo municipal socialista en las anteriores elecciones; ha dicho que con el informe, adjunto a la moción, de los trabajadores del consultorio de Urnieta sobre las condiciones del ambulatorio, su personal y las necesidades del pueblo queda suficientemente explicada la moción. Solicita que se apruebe la moción y que se agilicen los trámites para que puedan tener un nuevo ambulatorio que reúna el mínimo de condiciones y los servicios que sean igual para todos los urnietarras, ya que hay un médico que atiende a parte de los ciudadanos que está a media jornada y entonces creen que hay ciudadanos de segunda y de primera.

Después ha solicitado la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para exponer que se identifica con el tema, que se viene tratando desde hace tiempo, que las reservas de suelo que él proponía iban encaminadas en esa línea y que considera que todos deben dar pasos en positivo.

A continuación solicita la palabra la concejal del PP, M^a Asuncion Guerra Alonso, quien ha dicho que, estando totalmente de acuerdo con el fondo de lo que se plantea, ya que es verdad que el edificio está obsoleto y no cumple las mínimas necesidades, ahora bien, la forma en la que se han redactado los tres puntos de la moción no le gusta. En el primer




2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

kontzientzia hartu behar dutela, eta uste du ez dutela ezereen kontzientziarik hartu behar, kontzientzia hori aspaldi baitute; areago, Arau Subsidiarioen alegazioetan, talde guztiek, bai eta herritarrek ere, osasun etxea birmoldatzeko edo etxe berri bat eraikitzeke eskatu dute. Beraz, iruditzen zaio "kontzientzia hartu" esatea gertatzen denaren berri ez izatea dela, eta hori ez dela justua. Bigarren puntuak, berriz, "etxe berria eraikitzeke beharrezko pausoak eman daitezela" dio, eta uste du pauso horiek eman dituztela pixkana-pixkana, eta orain Arau Subsidiario berriekin egiteko modua dutela. Azaldu du horri buruzko kontsulta egin duela eta ondo dakiela Osakidetzak aurrean ez duela asmorik Urnietan osasun etxerik egiteko. Oria doktorearen lanaldia dela eta, azaldu du oro har Osakidetzako langileekin dagoela arazoa, baina ez zaiola egokia iruditzen bigarren mailako herritarrek daudela esatea; izan ere, mediku batek lanaldi erdiz kontsulta izateak ez du esan nahi beste lanaldi erdian pazienteei kasurik egiten ez zaienik. Horregatik guztiagatik, muinarekin ados egonda ere, mozioa nola idatzita dagoen ez zaio oso egokia iruditzen.

PSE-EE taldeko bozeramaile M. Teresa Pagazaurtundua Ruizek hartu du hitza, eta PPko zinegotziari erantzun dio esanez ez dutela nahi testuari eman nahi izan ez dioten irakurketa ematerik; izan ere, "kontzientzia hartzeak" ez du esan nahi beraiek ezer deskubritu dutenik; sozialistek ez dute esan nahi izan berak konturatu direnik lehendabizi, kontrakoa baizik; apal egin dute, mozioari langileen txostena erantsi baitiote. Testuari eman nahi izan dioten zentzua da Udalbatza gisa kontzientzia hartzeak esan nahi duela kolektibo gisa, kide anitzeko organo gisa hartzen dela kontuan. Bigarren mailako herritarrei dagokienez, adierazi du ez direla ari doktorearen pazienteei buruz, baizik eta egoera

puntu, que señala que tomen conciencia de la necesidad, considera que no tienen que tomar conciencia de nada ya que esa conciencia la tienen desde hace mucho tiempo; de hecho, en las alegaciones a las Normas Subsidiarias, todos los grupos, así como los ciudadanos, han incluido la remodelación o nueva edificación del Centro de Salud. Por lo tanto la expresión "que tome conciencia" le parece que es decir que no se han enterado de lo que pasa y eso no le parece justo. En lo referente al segundo punto: "dar los pasos necesarios para la construcción de un nuevo Centro" considera que ya se están dando dichos pasos poco a poco, ahora que tienen la oportunidad de hacerlo con las nuevas NNSS. Ha seguido exponiendo que ha consultado al respecto y sabe positivamente que Osakidetza para este año no tiene previsto hacer un Centro de Salud en Urnieta. En cuanto al problema de la jornada laboral de la doctora Oria expone que hay una problemática generalizada con el personal de Osakidetza, pero que no le parece adecuado decir que hay ciudadanos de segunda, ya que el hecho de que un médico pase consulta a media jornada no quiere decir que los pacientes queden desatendidos el resto de la media jornada. Por todo esto, aún estando de acuerdo en el fondo, la redacción de la moción no le parece la más adecuada.

Toma la palabra la portavoz del PSE-EE, M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz para responder a la concejala del PP, diciendo que no quieren que dé una lectura que ellos no han pretendido imprimir al texto, porque "tomar conciencia" no significa que ellos hayan descubierto algo, los socialistas no han intentado hacer la consideración de que ellos fueran los primeros que se dieran cuenta, sino lo contrario, lo han hecho humildemente ya que han presentado la moción adjuntando el informe de los trabajadores. El sentido que han querido inferir al texto es el de que, como Pleno, la toma en conciencia quiere decir que éste toma en consideración desde un punto de vista colectivo, como órgano colegiado que es. En cuanto a lo de



**2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006**

hori jasan behar duten urnietarren egoerari buruz. Erantsi du arazoa hitzak badira hori ez dela arazoa, diagnostiko bateratu bat baitute, eta beraz, "kontzientzia hartu" espresioa aldatzea proposatu du, eta egokiago bat jartzea, adibidez "bere egiten du beharra". PPko zinegotziak erantzun du ados dagoela espresioa aldatzearekin, zuzenagoa iruditzen baitzaio; gaineratu du gauza zehatzagoak eskatzeko orduan ausartago izatea gustatuko zitzaioela; horregatik, moziolari honako hau eranstea proposatu du: Osakidetza eskatzea har ditzala neurriak osasun etxean daukaten arazoa konpontzeko.

Gero, EAJ-EAko bozeramaile M. Isabel Vaquero Monterok eskatu du hitza, eta azaldu du talde guztien hauteskunde programetan agertzen zela osasun etxe berria, Arau Subsidiario berriekin dutela eraikitzen, Udalak hainbat bilera izan dituela Osakidetzarekin pediatria eta ginekologia gaiei buruz hitz egiteko, eta horregatik guztiagatik, bere taldeak ez duela arazorik mozia onartzeko. Adierazi du ados daudela M. Asuncion Guerrarekin, alegia denek dutela arazoaren kontzientzia, askotan hitz egin baitute horri buruz, eta ados daudela laugarren puntua eranstearekin ere, Osakidetzari hori eskatzearekin alegia; izan ere, beharrezkoa iruditzen zaio Osakidetzari konturatzea herrian denak daudela oso kontzientziatuta arazo horri buruz.

Hermenegildo Gonzalez Moranek eskatu du hitza, eta esan du nahiz eta argi dagoen denek dutela kontzientzia hiru urte daramatzatela agintean eta osasun etxe bera eta zerbitzu berberak dituztela oraindik ere.


Alkateak hartu du hitza, eta esan du etxea eraikitzeko Arau Subsidiarioak onartu beharko dituztela. Zinegotzi sozialistak erantzun dio ez

los ciudadanos de segunda ha expresado que se refiere, no a los pacientes de la doctora en cuestión, sino a la circunstancia de los ciudadanos de Urnieta que tienen que sufrir esta situación. Ha añadido que si las palabras son las causantes del problema éste no es tal, ya que tienen un diagnóstico común, por lo tanto propone cambiar la expresión "tome conciencia" por otra más oportuna, por ejemplo la de "asume la necesidad". Responde la concejala del PP que está de acuerdo con cambiar la expresión porque le parece más correcta; añade que le hubiera gustado que hubiesen sido un poco más valientes a la hora de pedir las cosas más concretas; por ello propone añadir a la moción que se inste a Osakidetza para que tome medidas para solventar el problema que tienen en el Centro de Salud.

Después ha solicitado la palabra la portavoz del PNV-EA, M^a Isabel Vaquero Montero para exponer que en los programas electorales todos los grupos hablaban del nuevo Centro de Salud, que las nuevas NNSS permiten que se pueda edificar, que desde el Ayuntamiento se han mantenido diferentes reuniones con Osakidetzari referentes al tema de pediatria y ginekologia y que por todo ello, su grupo no tiene problema en aprobar la moción. Sigue diciendo que están de acuerdo con M^a Asuncion Guerra en que todos están bien concienciados del problema, ya que lo han tratado muchas veces, y también están de acuerdo en añadir el cuarto punto, de instar a Osakidetzari, porque les parece necesario que Osakidetzari se de cuenta de que todos están muy concienciados en el municipio del problema.

Solicita la palabra Hermenegildo González Morán para decir que aunque esté claro que todos están concienciados lo cierto es que llevan tres años de legislatura y siguen con el mismo ambulatorio y los mismos servicios.

Ha tomado la palabra el Alcalde para decir que tendrán que aprobar las NNSS para poder construir el edificio, a lo que el concejal socialista le

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Guzkoa*

2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

dela beharrezkoa Arau Subsidiarioak onartzea osasun etxea eraikitzeko, eta ez jartzeko hori aitzakia gisa. Alkateak esan du Arau Subsidiarioen Aurrerapenean agertzen dela osasun etxea non eraiki behar den; hirugarren puntuari dagokionez, azaldu du Osakidetzari helarazi diotela, eta zehazki apirilaren 7an bilera bat eduki zutela Osakidetza arduradunekin; izan ere, ez da lehenengo aldia hori planteatzen dutena, eta hainbat bilera egin dituzte.

Azkenik, PSE-EEko bozeramaileak "kontzientzia hartu" jartzen duen tokian "bere egin" jartzea proposatu du, bai eta laugarren puntu gehitzea ere: "Osakidetzari eskatzea konpon ditzala herri honetan aspalditik dauden arazoak". Gainerako zinegotziak ados daude proposamen horrekin.

Eztabaidatu ondoren, alkateak PSE-EE taldeko mozioa bozkatzeko proposatu du; emaitza hau izan du:

Alde: 13 (6 EAJ-EA, 5 PSE-EE, 1 EB, 1 PP).
Kontra: 0
Abstentzioak: 0

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa eta bakarra.- PSEko udal taldeak aurkeztu duen mozioa onartzea, akta honetako eranskinaren arabera, zeina espedientean jasota baitago (Akta honen bigarren eranskina).

responde que no es necesaria la aprobación de las NNSS para edificar el Centro de Salud y que no ponga esto como excusa. El Alcalde dice que en el Avance de las NNSS se plantea dónde debe ir la edificación de este Centro; con respecto al tercer punto, expone que ya se ha dado traslado a Osakidetza y en concreto, que tuvieron una reunión con los responsables de Osakidetza el 7 de abril, en torno a esta problemática, ya que no es la primera vez que esto se plantea y ha habido varias reuniones.

Finalmente, la portavoz del PSE-EE, propone cambiar la expresión "tomar conciencia" por "asume", y asimismo, incluir un cuarto punto que diga: "Que se inste a Osakidetza a solventar los problemas referidos que se arrastran desde hace mucho tiempo en nuestro municipio". El resto de concejales se muestran conformes con dicha propuesta.

Tras el debate, el alcalde propone someter a votación la moción del PSE-EE, obteniendo el siguiente resultado:

A favor: 13 (6 PNV-EA, 5 PSE-EE, 1 IU, 1 PP).
En contra: 0
Abstenciones: 0

Tras la votación, el Pleno, por unanimidad, adopta el siguiente

ACUERDO

Primero y único.- Aprobar la moción presentada por el grupo municipal PSE, según el anexo adjunto al presente acta, que consta ya en expediente (Anexo II del presente acta).



2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

4.- Galde-eskeak.


Hermenegildo Gonzalez Moran zinegotzi sozialistak eskatu du hitza, eta hainbat gauza proposatu ditu:

- Oraindik banatu ez diren aktei buruz galdetu du: urtarrilaren 16koaren zuzenketaz eta martxoaren 20 eta 29ko aktez. Idazkariak erantzun dio bajaran egon dela eta horregatik ez dituela bidali.
- Azaldu du martxoaren 29ko udalbatzarrean Saletxeberriri buruzko mozio bat aurkeztu zela, non erabaki zen eraikin horren egoeraren berri Jabetza Erregistroari ematea, hirugarren batzuei kalterik ez egiteko; azaldu du apirilaren 18an Erregistroa bidalitako idatziaren kopia eskatu zuela eta oraindik ez duela jaso. Alkateak erantzun dio harrizten zaiola jaso ez izana, baina nolahi ere ez dagoela arazorik, eskuragarri duela eta bihar bertan emango zaiola.
- Untxi etxaldeari buruz ere galdetu du; izan ere, ez du ulertzen gaur egun oraindik zergatik ez duten untxi etxaldea itxi. Alkatezako Dekretuan agertzen den epean ez dute aurkeztu eskatu zaien dokumentazioa, eta dokumentazioa aurkeztu ezean etxaldea itxiko zela erabaki zenez, hala egin behar zen. Alkateak erantzun dio aurkeztu zutela eskatutako dokumentazioa, eta martxan jarri dela izapidea. Zinegotzi sozialistak berriz ere esan du dokumentazioa ez zutela aurkeztu emandako epean, eta alkateak erantzun dio hilabete eman zitzaizola baina Osakidetzak denbora gehiago pasatu zuela zein dokumentu falta zen zehazten, eta beharbada 35 egunen buruan aurkeztu zutela dokumentazioa; nolahi ere, dagoeneko abian jarri da, jarduerari dagokion ohiko izapidearekin bat.

4.- Ruegos y preguntas.

Ha solicitado la palabra el concejal socialista, Hermenegildo González Morán para exponer varias cuestiones:

- Pregunta por las actas de Pleno que no han sido entregadas: la corrección de la del 16 de enero, y las actas de 20 y 29 de marzo. Contesta la secretaria que la explicación es que ha estado de baja y por ello no han sido remitidas.
- Expone que en el Pleno de 29 de marzo se aprobó una moción referente a Saletxeberrri, en la que se acordaba remitir al Registro de la Propiedad las condiciones en las que se encuentra dicho edificio con el fin de evitar daños a terceros; explica que él solicitó con fecha 18 de abril copia del escrito remitido al Registro y que a fecha de hoy no le ha sido entregada. El Alcalde le responde que le extraña que no se le haya entregado, pero que en cualquier caso no hay ningún inconveniente, que está a su disposición y que se le entregará mañana mismo.
- Pregunta acerca de la explotación de la granja cunícula, ya que no entiende porqué a día de hoy dicha granja no está cerrada; cumplido el plazo concedido en el Decreto de Alcaldía para presentar la documentación requerida no la han presentado y ya que en ese caso, se decretaba la clausura así debía haberse hecho. El Alcalde le responde que la documentación requerida se presentó y que se ha puesto en marcha toda la tramitación pertinente; el concejal socialista insiste en que no se presentó en el plazo concedido y el Alcalde responde que se le concedió un plazo de un mes, pero que Osakidetza tardó más de ese tiempo en concretar qué documentación faltaba, que igual ha sido a los 35 días cuando ha presentado la documentación y que ya se le ha dado curso, de acuerdo con la tramitación ordinaria correspondiente a la actividad.




2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

- Sarasola jaunak aurrera ematen duen jarduerari buruz galdetu du; izan ere, hiru urte daramatzate jarduerarekin, eta orain jarduera legezatzeko eskatu zaio; adierazi du ez duela jokatzeko modu hori ulertzen. EBko zinegotziak hartu du hitza, eta esan du berak ere galdera bera zeukala egiteko. Alkateak erantzun du trenbideko materialak berreskuratzeko jardueraren barruan sartzen zela, eta lur saila ixteko erabakia Urnieta Eraikiko Kontseiluak hartu zuela, pentsatuz jarduera hori udalerriantzako onuragarria zela; nolahi ere, neurriak hartuko direla esan du, eta gai hori gero daukaten Urnieta Eraikiko Kontseiluan eztabaidatuko dutela.
- Pregunta por la actividad que lleva a cabo el señor Sarasola, porque lleva tres años con dicha actividad y ahora se le exige que legalice la actividad, expresa que no entiende estas actuaciones. Toma la palabra el concejal de IU para decir que él traía la misma pregunta. Responde el Alcalde que la actividad de recuperación de materiales ferroviarios entraba dentro de su actividad; que la cesión del terreno fue un acuerdo del Consejo de Urnieta Eraiki, considerando que era una actividad beneficiosa para el municipio, que en cualquier caso, se tomaran las medidas pertinentes y que trataran este tema en el Consejo de Urnieta Eraiki que tienen a continuación.

Horren ostean, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta berak ere hainbat gai buruz galdetu du:

- Azaldu du maiatzaren 19an idatzi bat aurkeztu zitzaioela alkateari, salgai arriskutsu eta tonaje handiko kamioei buruz, eta eskatu zitzaioela, Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantza eta 2112/1998 Errege Dekretua aplikatuz, beharrezko neurriak har zitzala bi garraiobide horien zirkulazioa legerari egokitzeko. Horri buruz galdetu du. Alkateak erantzun dio bere eskaera ez zela moztu gisa aurkeztu eta, beraz, ez dutela sartu udalbatzar honetako gai zerrendan, dagoeneko bideratuta dagoelako. Azaldu du EBko zinegotziak aipatu duen Errege Dekretua indargabetuta dagoela, eta gai honen inguruan hainbat administrazioek dutela eskumena, hala nola, Udalak, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak (salgai arriskutsuen gaineko eskumena Eusko Jaurlaritzarena da; tonaje handiko salgaien eskumena, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Horregatik guztiagatik, idatzi bat bidali zaie
- Después ha solicitado la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena, quien también ha preguntado sobre varios temas:
 - Explica que con fecha 19 de mayo presentó un escrito al Alcalde en relación con las mercancías peligrosas y camiones de gran tonelaje, solicitando, en aplicación de la Ordenanza municipal reguladora del Tráfico y del Real Decreto 2112/1998, que se adopten las medidas necesarias al objeto de que el tráfico de ambos transportes se ajuste a las exigencias legales. Pregunta sobre este asunto. El Alcalde le responde que su solicitud, que no se presentó como moción y por lo tanto, no se ha incluido como punto aparte del orden del día de este Pleno, ya ha sido encauzada. Explica que el Real Decreto que menciona el concejal de IU está derogado y que con respecto a este tema, la competencia es concurrente entre varias administraciones, Ayuntamiento, Diputación y Gobierno Vasco (la competencia en cuanto a mercancías peligrosas corresponde al Gobierno Vasco; la competencia en cuanto a mercancías de gran tonelaje corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa). Por todo ello, se ha dirigido escrito, tanto al Departamento de



2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Obra Publikoetako Departamentuari, eta txosten bana eskatu zaie salgai arriskutsuen garraioan eta tonaje handiko garraioan baimenak arautu eta emateko eskumena duen organoari buruz, bai eta Udalak arazo hori konpontzeko har ditzakeen neurriei buruz ere.

- Langardako gaiari buruz ere galdetu du, eta azaldu du urtarrilaren 25eko ohiko udalbatzarrean, galde-eskeetan, alkateak hilabete batzuk itxaroteko asmoa azaldu zuela, eta ezer konpontzerik lortzen ez bazuten auzibidera joko zutela. Azaldu du pasatu dela epe hori eta ez duela horren berri. Alkateak erantzun dio garai batean esan zuten bezala auzibidera jotzeko prozesu guztia abiarazi dutela baina lehenago beste pauso batzuk eman behar dituztela, hala nola obrak balioztatu. Azaldu du eskatu dutela balioztapen hori eta horren zain daudela; horren ostean, dagozkion tramiteak egingo dituzte.
- *Berritu*-n gas kontsumoko gastuaren igoerari buruz argitaratu den artikuluz galdetu du. Adierazi du informazio hori zinegotzi guztiei eman behar zutela; izan ere, garrantzi handiko kontua da, denak kezkatzen dituen. Alkateak erantzun dio udalerrian gasaren igoera dela-eta dagoen kezka ikusita hainbat txosten eskatu zituela, eta gero informazio hori udal aldizkariaren bidez zabaldu zutela. Halaber, alkateak adierazi du batetik ezinezkoa dela udal bizitzako alderdi guztietan egiten diren kudeaketa guztien berri ematea, eta bestetik zinegotzien betebeharra dela udal gaiei buruz interesatzea; esan du bera egunero egoten dela udaletxean behar duten
- Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, como al Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, solicitando informe sobre el órgano competente para la regulación y concesión de las respectivas autorizaciones en el ámbito del transporte de las mercancías peligrosas así como en el de transporte de gran tonelaje, así como sobre las medidas que el Ayuntamiento pudiese adoptar a fin de solucionar dicha problemática.
- Pregunta sobre el tema de Langarda, explicando que en el Pleno ordinario de 25 de enero, en el punto de ruegos y preguntas, el Alcalde explicó que su intención era esperar unos meses, y si no se conseguía arreglar el tema, que acudirían a la vía judicial. Expone que ya ha transcurrido ese tiempo y que no tiene noticias al respecto. El Alcalde le contesta, que tal y como se dijo en su día, se ha puesto en marcha todo el proceso para acudir a la vía judicial, pero que previamente deben darse algunos pasos, como la valoración de las obras. Explica que ya ha solicitado dicha valoración y que se está a la espera de la misma, después se seguirán los trámites pertinentes.
- Pregunta sobre el artículo publicado en el *Berritu*, acerca de la subida del gasto en el consumo de gas. Expresa que esa información debía haber sido puesta en conocimiento de todos los concejales, ya que es un tema de relevancia, que preocupa a todos. El Alcalde contesta que, a la vista de la preocupación existente en el municipio por la subida del gas, solicitó varios informes al respecto y después trasladó dicha información a través de la revista municipal. También expresa el Alcalde que, por un lado, es imposible dar cuenta de todas las gestiones realizadas en los diversos ámbitos de la vida municipal y que, por otro lado, es obligación de los concejales interesarse sobre los asuntos municipales, que él está todos los días en el Ayuntamiento para dar la




2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

informazioa emateko. Gero EAJ-EAko bozeramaile M. Isabel Vaquerok eskatu du hitza, eta EBko zinegotziari esan dio ez zaiola normala iruditzen egunero udaletxean egonda eta udal gobernua gonbidatuta Tokiko Gobernu Batzarretara joanda galdera guztiak ohiko udalbatzarretan egitea, eta informaziorik ematen ez zaiolako itxura ematea, hori ez baita hala. EBko zinegotziak erantzun du ezetz, Alkateak inoiz ez diola informaziorik ukatu, baina eskertuko lukeela informazio orokor gehiago; bestalde, esan du ohiko udalbatzarrean galdetu duela gai horri buruz udalbatzako kide guztiek jakin dezaten.

- Langile batek salaketa bat jarri duela-eta Arartekoak bidali duen txosten bati buruz ere galdetu du. Txosten horretan, beharrezkotzat jotzen diren langile beharrak zehaztera aholkatzen du Udala, bai eta behar horiek zehaztuta dauzkanean berdintasun, meritu eta gaitasun oinarrien arabera betetzera ere. Alkateak erantzun du orain dabiltzala kontu horrekin, eta hiru departamentu berrantolatu nahian ari direla; horretarako, langileekin hitz egiten ari dira, langile bakoitzaren funtzioak eta lanpostu bakoitzeko funtzioak definitzeko. Hitza eskatu du PSE-EEko bozeramaile M. Teresa Pagazaurtundua Ruizek eta esan du alkateak ez duela eskubiderik txostenean agertzen diren adierazpen batzuk egiteko: "Aurkeztutako azterketak ez zuen izan gainerako udal taldeen onespenean, eta trabak jarri dituzte Urnieta Udalaren antolamendua eta funtzionamendua optimizatze edozein neurri ezartzeko". Bozeramaile sozialistak esan du adierazpen hori ez dela egia, eta ezin egotz diezazkiokeela oposizioari bere

información que precisen. Solicita la palabra la portavoz del PNV-EA, M^a Isabel Vaquero Montero para dirigirse al concejal de IU, diciéndole que no le parece normal que, estando todos los días en el Ayuntamiento y acudiendo invitado por el gobierno municipal a las Juntas de Gobierno Local, formule todas las preguntas en un Pleno ordinario, dando la sensación de que no se le facilita información, extremo que no es así. El concejal de IU contesta que efectivamente nunca se le ha negado información por parte de la Alcaldía, pero que agradecería más información en general; por otro lado, expresa que ha preguntado sobre el tema en el Pleno ordinario para que el mismo sea conocido por todos los miembros de la corporación.

- Pregunta acerca de un informe del Ararteko que les ha sido remitido, consecuencia de una denuncia presentada por un trabajador; en dicho informe, se recomienda al Ayuntamiento que redefine las necesidades de personal que estime necesarias, así como que una vez definidas, adecue el modo de provisión de estas necesidades a los principios de igualdad, mérito y capacidad. El Alcalde responde que están ahora mismo con ese tema, intentando reorganizar tres departamentos, para ello, se está hablando con los trabajadores, de cara a definir las funciones de cada trabajador, así como las correspondientes a los puestos de trabajo. Solicita la palabra la portavoz del PSE-EE, M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz para decir al Alcalde que no tiene derecho a hacer manifestaciones como las recogidas en dicho informe: " El estudio presentado no obtuvo la aprobación de los restantes grupos municipales obstaculizando los mismos la implantación de cualquier medida tendente a la optimización organizativa y del funcionamiento del Ayuntamiento de Urnieta". Expresa la portavoz socialista que dicha afirmación no es cierta, y que no puede cargar a la oposición con sus errores de gestión. El Alcalde le contesta que se



2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

kudeaketa akatsak. Alkateak erantzun du LKSren proposamena aurkeztu zuela eta proposamen hori ez zuela oposizioko ezein taldek onartu; beraz, proiektua ez zen aurrera atera. Hermenegildo Gonzalez Moran zinegotzi sozialistak esan du ez zutela horren inguruan bozketarik egin. PPko zinegotziak erantzun du baietz, proposamen hori bozkatu zutela, eta bakarrik udal gobernuaren babesa lortu zuela.

Azkenik, alkateak PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsori eman dio hitza, galde edo eskerik egin nahi badu ere. Azken honek esan du berak egiteko zeuzkan galderak dagoeneko egin dituela EBko kideak eta, beraz, ez duela ezer gehiago galdetzeko.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatzar hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko bostak bost gutxiagotan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

presentó la propuesta de LKS y que la misma no fue aprobada por ningún grupo de la oposición, por lo que el proyecto no salió adelante. El concejal socialista Hermenegildo González Morán expresa que no votaron nada al respecto, a lo que la concejal del PP contesta que efectivamente se votó la propuesta y que sólo obtuvo el apoyo del gobierno municipal.

Por último, el Alcalde ha cedido la palabra a la concejal del PP, M^a Asuncion Guerra Alonso por si quiere formular algún ruego o pregunta. Esta última ha expresado que las preguntas que tenía ya han sido formuladas por el compañero de IU y por lo tanto, no tiene nada más.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco menos cinco del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Beatriz Garate Cortaberria
Bitarteko idazkaria,



Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,



I. ERANSKINA/ANEXO I:

Urnietako Udala*Siguzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

UDAL LIBURUTEGIKO ZERBITZUARI BURUZ
PSEK AURKEZTUTAKO MOZIOA

MOCIÓN PRESENTADA POR EL PSE, SOBRE
EL SERVICIO DE LA BIBLIOTECA MUNICIPAL

ZIOEN AZALPENA

2006ko apirilaren 7an, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranen eskaera bat erregistratu zen udaletxean, 882. erregistro zenbakiarekin. Idatzi horretan, Kontratazio eta Langile batzorde bat egiteko eskatzen zuen, udal liburutegiko langile Luixi Zabalegui Anabitartek behin eta berriz salatu duen arazo bati konponbidea emateko.

Hilabete baino gehiago igaro da ordutik, eta ez dugu gure eskaeraren erantzunik izan, ez inolako adierazpenik ere, eta horrek bultzatu gaitu Udal honek 2006ko maiatzaren 31n egingo duen ohiko udalbatzarren MOZIO hau onar dezala eskatzera:

MOZIOA

1.- Urnietako Udalak azterketa eta txosten tekniko serio bat eska ditzala, udal liburutegiko langilearen lanpostuari buruz eta langile horrek lanpostu horretan egiten dituen lanei buruz.

2.- Txosten hori aztertu ostean, Luixi Zabalegui Anabitarte langilearen egoera erregularizatu dezala edo ez dezala erregularizatu.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El día 7 de abril de 2006 se registró en el Ayuntamiento una solicitud por parte del concejal del PSE-EE Hermenegildo González Morán y con el número de registro 882. Se solicitaba una Comisión de Contratación y de Personal, con el fin de darle una posible solución al problema que reiteradamente viene denunciando la trabajadora de la Biblioteca Municipal Luixi Zabalegui Anabitarte.

Pasado más de un mes no hemos obtenido respuesta a nuestra petición, ni comunicación alguna, lo que nos obliga a solicitar que por parte de este Ayuntamiento y en el próximo Pleno Ordinario del día 31 de mayo de 2006 se apruebe la siguiente MOCIÓN:

MOCIÓN

1.- Que el Ayuntamiento de Urnieta encargue un estudio y un informe técnico serio al puesto y a las labores que viene desarrollando la actual trabajadora de la Biblioteca Municipal.

2.- Que estimado dicho informe se proceda o no a la regularización de la citada trabajadora, Luixi Zabalegui Anabitarte.

II. ERANSKINA/ANEXO II:



2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006

URNIETAKO OSASUN ETXEARI BURUZ PSEK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

MOCIÓN PRESENTADA POR EL PSE, SOBRE EL CENTRO DE SALUD DE URNIETA

ZIOEN AZALPENA

Mozio honen helburua da Udalbatza jakinaren gainean jartzea osasun etxean ematen ari diren zerbitzuen baldintzen inguruan eta etxe horren egoeraren inguruan.

Mozio hau osasun etxeko profesionalekin eta urnietar batzuekin izandako bileren ondorio da, bai eta egungo osasun etxearen egoera zein den ikusteko hara egindako bisita batzuen ondorio ere. Profesionalek diotenez, Gipuzkoako osasun etxerik zaharkituena da.

Mozio honi Urnietako kontsultako langileen txostena erantsi diogu. Txosten hori osasun etxeko baldintzei, langileei eta herriaren beharrei buruzkoa da, eta gu ados gaude txosten horrekin, geure egiten dugu, garbi azaltzen baitu zein den Urnietako osasun etxearen egoera.

Txostenean agertzen den beste lehentasun eta premiazko arazo bat Oria doktoreak kontsultan duen egoera da. Izan ere, haren pazienteak diskriminatuta daude gainerako urnietarren aldean.

Adierazitakoagatik, eta herritarren, kontsultako langileen eta gure eskariak kontuan hartuz, Udalari eskatzen diogu ahal den azkarrena, Urnietako Udalaren hurrengo ohiko batzarrean, honako MOZIO hau onar dezala:

MOZIOA

1.- Urnietako Udalak bere egiten duela gure herriak osasun etxean dauden arazoak konpontzeko duen beharra.

2.- Beharrezko pausoak eman daitezela Urnietan osasun etxe berri bat eraikitzeko, gaur egungoa erabat zaharkituta baitago.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El objeto de esta moción es poner en conocimiento del Pleno del Ayuntamiento nuestra preocupación en relación a las condiciones en que se viene desarrollando el servicio del Centro de Salud y las condiciones en las que se encuentra dicho Centro.

La moción que presentamos es consecuencia de varias reuniones mantenidas con los profesionales del centro, con los ciudadanos de Urnieta y varias visitas a comprobar el estado actual del ambulatorio. Y que según los profesionales nos encontramos ante el edificio de ambulatorio más obsoleto de Gipuzkoa.

Acompañamos a esta moción un informe de los trabajadores del consultorio de Urnieta sobre las condiciones del ambulatorio, su personal y las necesidades del pueblo. Informe que compartimos, hacemos nuestro y que refleja claramente la situación actual de nuestro Centro de Salud en Urnieta.


Otro de los problemas prioritarios y urgentes que refleja el informe es la situación de la doctora Oria con relación a su consulta. Ya que sus pacientes están discriminados con respecto al resto de ciudadanos de Urnieta.

A tenor de lo anteriormente expuesto y teniendo en consideración tanto las demandas de los ciudadanos, de los trabajadores del consultorio y las nuestras propias, solicitamos que por parte de este Ayuntamiento y con la mayor brevedad posible se apruebe en el próximo Pleno ordinario del Ayuntamiento de Urnieta la siguiente:

MOCIÓN

1.- Que el Pleno del Ayuntamiento de Urnieta asume la necesidad que tiene nuestro municipio de solucionar los problemas de nuestro Centro de Salud.

2.- Que se den los pasos necesarios para la construcción de un nuevo Centro de Salud en Urnieta. Ya que el actual está completamente

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Gipuzkoa*

**2006KO MAIATZAREN 31KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 31 DE MAYO DE 2006**

obsoleto.

3.- Beharrezko pausoak eman daitezela Oria doktoreak Urnietako osasun etxean lanaldi osoa izan dezan gure herriko bizilagunentzat, plaza hori Urnietari baitagokio.

4.- Osakidetzari eska diezaiola herri honetan aspalditik dauden arazoak konpontzeko.

3.- Que se den los pasos necesarios y oportunos para que la doctora Oria disponga del 100% de su jornada laboral en el ambulatorio de Urnieta y se pueda dedicar a los ciudadanos de nuestro municipio. Ya que esta plaza nos corresponde a Urnieta.

4.- Que se inste a Osakidetza a solventar los problemas referidos que se arrastran desde hace mucho tiempo en nuestro municipio.